

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

364/2016 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, onartzen duena María Ángeles Bujanda Chascoren behin-behineko izendapena, Oiongo Udaleko idazkari lanpostua betetzeko, uztailaren 26tik abuztuaren 12ra (egun biak barne)

Oiongo Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen horren beharra daukala, aipatutako epe horretan udal idazkari Alfredo Sastre de Abajo ordezkatzeko.

Horregatik guztiagatik, proposatzen du udal horretako administrari lanpostuan diharduen María Angeles Bujanda Chasco behin-behineko izendatzea aldi horretarako.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halabeharrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Ángeles Bujanda Chasco Oiongo Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan 2016ko uztailaren 26tik abuztuaren 12ra, titularrak ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Oiongo Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ